

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIZAHARREKO UDALA

#### **Udal gimnasio zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen zerga ordenantza behin betiko onartzea**

Udalbatzak, 2021eko abuztuaren 3ko bilkuran, udal gimnasio zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen zerga ordenantzari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen araudiaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauak 16.3 artikuluan.

Aipatutako Foru Arauaren 16.4 artikulua eta 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailearen 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua arabera.

Hori guztia, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

#### **PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDAL GIMNASIO ZERBITZUA EMATEAGATIK TASA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA**

##### **1. artikulua. Oinarria eta izaera**

Toki Erakunde honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 7. artikulua esleitzen dion ahalmena erabiliz, eta arau horren 15. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, udal gimnasioaren zerbitzua emateagatik tasaren zerga ordenantza onartzen du.

##### **2. artikulua. Zergapeko egitatea**

Tasaren zerga-egitatea da udal-gimnasioko instalazioen aprobetxamendu berezia edo erabilerat pribatiboa, bai eta ordenantza honetan aipatzen den kirol-zerbitzu publikoen prestazioa ere, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 21. artikuluan aurreikusita.

##### **3. artikulua. Subjektu pasiboa**

Tasa honen subjektu pasiboak, zergadun gisa, tasaren ezaugarriengatik, pertsona fisikoak dira; bai eta Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 36. artikuluan aipatzen diren subjektuak ere, udal-gimnasioaren instalazioetan toki-erakundeak ematen duen zerbitzuaren onuradun direnak edo izatea eskatzen dutenak eta zerbitzuak eragiten dien horiek.

##### **4. artikulua. Arduradunak**

Arduradunei dagokienez, Arabako Zerga Orokorrari buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak xedatutakoa beteko da, bai eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 28. artikuluan ezarritakoa ere.

**5. artikulua. Sortzapena**

Tasa ordaintzeko betebeharra sortzen da subjektu pasiboak alta ematen duenean udal-gimnasioaren erabilera edo instalazioek dituzten kirol-zerbitzuen prestazioan, hori baita zergapeko egitatearen xedea.

**6. artikulua. Zerga-kuota**

Udal gimnasioko instalazioen erabilera pribatiboagatik tasagatik likidatu eta eskatu beharreko kopurua, horretarako ezarritako zenbatekotik aterako da.

1. Udal gimnasioko urteko bonuen tarifak:

• Bertako erabiltzaileentzat:

Langabezia-prestaziorik ez duten pertsona langabeak eta erretiratuak (pentsiodunak izan ezik): 45,00 euro.

Gainerako erabiltzaileak: 50,00 euro.

Bertakoak ez diren erabiltzaileentzat:

Gainerako erabiltzaileak: 65,00 euro.

2. Udal gimnasioko udako bonuen tarifak (uztaila, abuztua eta iraila):

• Bertako erabiltzaileentzat:

Langabezia-prestaziorik ez duten pertsona langabeak eta erretiratuak (pentsiodunak izan ezik): 25,00 euro.

Gainerako erabiltzaileak: 30,00 euro.

• Bertakoak ez diren erabiltzaileentzat:

Gainerako erabiltzaileak: 35,00 euro.

Lokaltzat hartuko dira Peñacerrada-Urizaharreko udalerrian erroldatuta dauden eta biztanleen udal erroldan hala jasota dauden pertsona guztiak. Aitzitik, ez-lokaltzat hartuko dira udalerrian erroldatuta ez dauden pertsonak.

**6. artikulua. Aitorpena eta diru-sarrera**

1. Zerbitzua emateagatik eta udal-gimnasioko instalazioak erabiltzeagatik eskatu beharreko kuotak urtero likidatuko dira urteko tarifaren kasuan, eta ekaineko lehen hamabost egunetan udako tarifaren kasuan.

2. Tarifaren bilketa honela egingo da:

– Udako denboraldiko sarreraren kasuan: Bonuak egiteko udal bulegoetan dagokion eskaera egin beharko da, eta Kutxabankekoko kontuan (ES28 2095 3212 6510 9522 5685) banku-transferentzia egin ekainaren lehenengo 15 egunen barruan eta frogagiria udaletxean aurkeztu.

– Urteko bonuen kasuan (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra): abonatuak dagokien eskaera egin beharko dute udal bulegoetan, eta tasa urtero likidatu beharko dute, urtarrilaren lehenengo 15 egunen barruan, banku-transferentzia bidez KUTXABANKera (ES28 2095 3212 6510 9522 5685). Udal bulegoetan aurkeztu beharko dute ordainketaren frogagiria, edo bestela, Udalari idatziz eman beharko diote kobratzeko baimena.

Herritarrek tarifa errazago ordain dezaten, Udalak tarifa helbideratzeko eskatu ahal izango du, eta dagozkion inprimakiak jarriko ditu herritarren eskura.

Aurreko paragrafoetan aipatutako 15 egunak igaro ondoren eta tarifa ordaindu ez bada, abonatuari baja emango zaio eta instalaziora sartzea debekatuko zaio, sarbide-txartela ezeztatuz.

**8. artikulua. Indarraldia**

Ordenantza hau oso-osorik argitaratuko da ALHAOn, eta argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Azken xedapena: ordenantza fiskal honekin indargabetuta geratzen da zerbitzu publikoak eta administrazio-jarduerak emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren eranskineko 2. B) Idatz-zatia.

Urizarharrean, 2021eko irailaren 30ean

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*